

DIRU-SARRERAK

Atal honetan, azalduko dugu zenbat eta nola ordaintzeko prest dagoen gure bezeroa eskaintzen ari garen produktuaren edo zerbitzuaren truke.

Ez dagoenez gure produktuaren bezalakorik merkatuan, bere prezioa ez da merkea izango, gainera hizozgailu hau bizitza osoa iraungo duela bezeroen alboan ziurtatu dezakegu. Horregaitik, 50 urteko garantia dauka; beraz, denbora tarte hori baino arinago estropeatzekotan, berri bat bidaliko genuke.

Bere prezioa 2699,99€-koa da, baina azaldutako guztia kontuan hartuta, prezio egokia da.

Lehenengo urtean 200 unitate salduko ditugula aurreikusi dugu. Hozkailu bakoitzaren prezioa 2699,99€-koa izango denez, 539.998€-ko diru-sarrerak izango ditugu, baina hozkailu bakoitza produzitzeak 1.300€ balio du. Beraz, gure irabazi totalak 279.998€-koak izango dira, hozkailu bakoitzeko 1.399,99€ irabaziko dugu.

Posiblea da guztia ordainketa bakarrean egitea, eskudiruan edo kreditu txartelez ordainduz. Beste aukera bat, ordainketa hileroko egitea da. Kasu horretan, bezeroak 40€ ordaindu beharko lituzke hileroko bost urtetan zehar.

